

## **Zizur Nagusiko Udalak antolatutako ikastaro eta prestakuntza-jarduerak.**

### **Araudia**

- Izen-emateak info-local telefonora deituta egin daitezke soilik: 948 012012, 08:00etatik 19:00etara. Dei horretan adierazi beharreko datuak: jarduera (hizkuntza zehaztu), izen-abizenak, NAN, jaiotze-data, telefono finkoaren eta mugikorraren zenbakia, posta elektronikoen helbidea, kreditu-txartelaren zenbakia, kontu-korrontearen zenbakia (beharrezkoa den ikastaroetan: iraupen luzeko ikastaroak eta haur eta gazteei zuzendutakoak, ordainketa zatikatua badute). Dei batekin egindako izen-emate guztiak kreditu-txartel berean zordunduko dira.
- Udaletxeko Kultur Patronatuak eskaintzen dituen jarduera guztiak Zizur Nagusian edo Zizurko Zendea erroldatutako pertsonen zuzenduta daude. Bestela ere izena eman nahi izanez gero, Kultur Zerbitzuak kudeatuko duen itxaron-zerrendan apunta daitezke. Leku librean egonez gero, eskatutako jardueran izena eman ahalko dute.
- Eskaintako ikastaroek, ordutegiak eta aretoek aldaketak izan ditzakete, izen-emateen kopuruaren arabera. Ez badago izen-emate aski, eskaintza bertan behera geratuko da.
- Parte-hartzaile bakoitza izena eman duen talde horretara joan daiteke soilik. Hala ere, aldaketak onar daitezke, Kultur Zerbitzuan justifikatuz gero arrazoi laboralak direla eta aldaketa beharrezkoa dela. Enpresaren egiaztagiria aurkeztu beharko du.
- Ordainketa kreditu-txartelaren bidez egin nahi ez duen pertsonak Kultur Patronatuko kontu-zenbakiaren bidez egin dezake: ES09 3008 0066 8207 0255 2324. Kasu horretan, ordainketa-egiaztagiria aurkeztu beharko du Zizur Nagusiko Udaletxeko Kultur Zerbitzuan. Aurkezteko azken eguna 2017ko irailaren 22a izanen da.
- Haurrentzako eta gazteentzako ikastaroak: kuota bakarra. Ordainketa erraztu asmoz, haurrentzako eta gazteentzako iraupen luzeko ikastaroak bi epetan ordaindu ahalko dira: % 60 izen-ematea egiterako momentuan eta % 40 abenduan, banku-igorpen baten bidez.
- Helduentzako eskaintzen diren jarduerak, iraupen luzekoak, 3 kuotatan ordainduko dira (argazkigintza ikastaroetan izan ezik, bi kuotatan izanen baita): lehena izen-ematea egiteko momentuan eta beste biak banku-igorpenen bidez eginen dira urtarrilean (1. hamabostaldian) eta martxoan (2. hamabostaldian).
- **Jarduerak urriaren 2tik aurrera hasiko dira.**

### **BAJAK ETA ITZULKETAK**

- Beharrezkoa izanen da baja idatziz eskatzea Zizur Nagusiko Udaletxeko Kultur Zerbitzuan. Baja emateak ez du esan nahi ordaindutako kuota itzuliko denik.
- **Arrazoi mediko eta laboralengatik** itzuliko da soilik ordaindutako kuota. Behar den moduan justifikatu beharko da Kultur Zerbitzuan, medikuak edo enpresak igorritako dokumentua aurkeztuta.

#### **DATUEN BABESA**

-**Tratamenduaren arduraduna:** Zizur Nagusiko Udala.

-**Helburua:** Zizur Nagusiko Udalaren Kultur zerbitzuak egindako eta sustatutako kultur jardueren kudeaketa, informazioa eta gauzatzeko kontrola.

-**Eskubideak:** datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ebazteko eskubidea du, baita beste eskubide batzuk ere, udal-bulegoetara edo posta elektronikora joz. [delegadaprotecciondatos@zizurmayor.es](mailto:delegadaprotecciondatos@zizurmayor.es)

-**Informazio gehiago:** Pribatutasun politika, <http://www.zizurmayor.es/>

**Hirugarrenen datuak, baimenarekin**

Inskripzioa izapidetzeko beharrezkoa bada inskripzioa egiten duen pertsona ez den beste pertsona fisiko batzuen datu pertsonalak sartzea, pertsona horiek sartu aurretik, aurreko paragrafoan jasotako alderdien berri eman beharko die, eta, beharrezkoa bada, haien datuak tratatzeko berariazko baimena izatea.